

UPV/EHUN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2021:

III. MODALITATEA

Emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak argitaratu zuen

UPV/EHUN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2021: III. MODALITATEA (TUTOREKIDETZA BORDELE)

2021eko azaroaren 16an ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda argitaratu zen errektoreordetzaren webgunean.

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, IGBBk, 2022eko otsailaren 4an egindako bileraren ondoren, esleipen proposamena egin zuen, behin behi neko ebazpena emateko eta argitaratzeko .

ESKAERAK BEHIN-BEHINEKOZ ONARTUTA DITUZTENEK 2022eko otsailaren 16tik martxoaren 1era arte (biak barne) dute, kontratua onartu edobertan behera uzteko, mezu elektronikoko bat helbide honetara bidalita: igz.pif-eskaerak@ehu.eus.

Behin epe hori igarotakoan, ez bada kontratua onartzeko edo bertan behera uzteko mezurik bidali, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

ESKAERAK BEHIN-BEHINEKOZ UKATUTA DITUZTENEK aurrean aipatutako 10 eguneko epe berean alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte: **2022eko otsailaren 16tik martxoaren 1era arte (biak barne).**

Epe horren barruan, hautagaiek euren eskaerari dagokion ebaluazio txosten osoa eskatu ahal izango dute igz.pif-eskaerak@ehu.eus helbidera idatzita, mezuaren gaien hau jarri: "BORDELE Deialdia 2021".

Zuzenketak eta alegazioak bide hauetatik aurkeztu ahalko dira:

Euskarri fisikoan:

UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoetan edo edozein posta bulegotan aurkez daitezke administrazio bidalketaren bidez, hau da,

dokumentazioa gutun azal irekian aurkeztuta Postetxeko langileek lehenengo orriari zigilua jar dezaten eta, behin hori eginda, posta ziurtatuaren bidez igorri hona: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala), Errektoregoaren eraikina, Sarriena auzoa, z/g, 48940 -Leioa (Bizkaia).

Euskarri elektronikoan:

Dokumentazioa **erregistro elektronikoan** aurkeztuz:

<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>.

Erregistro elektronikoa erabiliz gero, "Nora atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256), eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da:" PIF 2021"

**Aipatutako aurkezpen-bide guztiek baliogarritasun bera dute.
Beraz, interesdunei bakar bat erabiltzeko eskaera luzatzen zaie.**

Aurkeztutako alegazioak aztertuko ditu Ikerketa Batzordeak, egingo duen hurrengo bileran.

OHAR GARRANTZITSUA:

Aurkeztutako eskaera kopurua kontuan hartuta, eta eskatzaile guztiei ahalik eta azkarren erantzuteko asmoz, kontsulta guztiak posta elektronikoko bidez egin daitezela eskatzen da, helbide honetara idatzita: igz.pif-eskaerak@ehu.eus.

Leioan, 2022eko otsailaren 15ean

INMACULADA AROSTEGI MADARIAGA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEA
VICERRECTORA DE INVESTIGACIÓN